



MAIATZEAN ERE KONTZERTU AUKERA HANDIA

Ohiko moduan, zuzeneko musikaz gozatzeko aukera paregabea izango da maiatzean Tolosako Bonberenean >4

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Larunbata
2009-04-25**

VIIURTEA 1.685.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Herri kirol probak nahiz atletismo probak izan zituzten gaztetxoek aukeran. EZEIZA

KIROLA EGINEZ ETA HARREMANAK SENDOTUZ

TOLOSA Eskola Txikietako Kirol Topaketak izan ziren atzo Berazubiko estadioan; 200 ikaslek hartu zuten parte jolas eta kirol probetan 5

Ane Labaka eta Oihana Iguaran azken kanporaketaren zain, atzoko saioaren ostean

VILLABONA Eskolarteko Bertso Txapelketako lehen saioa izan zen Gurean 6

Krisia jorratuko dute Sanblaspiko Gazte Asanbladak antolaturiko Maiatza Gorrian

TOLOSA Asteazkenetik larunbatera hainbat ekitaldi izango dira 7

Adimen ekologikoari buruzko hausnarketa eginez, agur Naturaldiari

TOLOSA Jose Antonio Marina filosofo eta irakasleak eman zuen hitzaldia atzo 4



Jose Jabier Etxeberriak Ruandako bizpenak kontatu zituen. A. IMAZ

Erleta kalitatezko hezkuntzaren alde

LEITZA 'Liburu bat zabalduz mundua eskura' lelopean hainbat ekitaldi izan zituzten atzo 3

Nola pairatu dituzte krisiaren ondorioak herritarrek?

KRISIA HITZAK krisiaren inguruko bildumari herritarren iritziarekin emango dio amaiera 2

ausoegi
barne berrikuntzak
Erakusketa berria! (400 m²)

Urdaneta kalea, behea
20240 Ordizia
tel.- faxa 943 889 576
www.ausoegi.com

Aprobetxatu promozio berezia orain!



Tximinitan erakusketa berria:

-40 aparatua baino gehiago :
Zurezkoak, gazezkoak, pelletezkoak
-Behoko suak neurritan eta bertan diseinatuak

bainuak tximiniak zeramikak sukaldeak diseinatuak proiektuak

Sukalde eta bainu gelatan adituak



**I Inkesta**

Pasa den urtarrilaren 24an ekin zion HITZAK krisiaren inguruko bildumari. Guztira hamar atal bildu ditu bilduma honetan; tartean sindikatuek, merkatariek, nekazariak, udalek, banketxeek, ekonomilari aholkulariek,... egungo egoera ekonomikoaren ikuspuntua eman dute. Azken atala herritarrari eskaini nahi izan dio HITZAK, azken batean asko du esateko... **ASIER IMAZ - REBEKA CALVO**

«Autonomo bezala ez daukagu ezer»

HARITZ TARRAGONA > Langile autonomoa

Haritz Tarragona tolosarra da eta pasa den astelehenean geratu zen lanik gabe; autonomia izanik ez du langabeziko dirurik jasotzen. Etorkizuna oso ilun ikusten du, «nik uste dut dena behera eroriko dela eta hortik hasi beharko dugula berriz ere; oso zaila ikusten dut». **Nabaritu al duzu krisiaren eragina inguruan?** Askok. Ni astelehenean geldituta nago; autonomia naiz eta eraikuntza egiten dut lan.

Azkenaldian sumatzen al zenuen krisia edota bat-batean etorri zaizue?

Nabaritzen genuen lehen bezalako lan kargarik ez zegoela. Lehen ia egunero deitzen zituzten lanen bat eskaintzeko, baina azkeneko urtean dei gutxiago jaso ditugu. Azken urte hau hasi denetik kolpetik etorri da lan gutxitzea. Orain ez dago bat ere lanik.

Eta orain zer?

Guk adibidez autonomo bezala ez daukagu ezer, ez dugu langabeziko dirurik jasotzeko aukerarik. Oso izurratuta gaude.

Autonomoentzako langabeziare-



A. IMAZ

kin zerikusia duen lege berri baten inguruan hitz egin dute...

Bai, baina lege honek eragina izateko autonomoen seguruaren zenbatekoa igoko digute eta hau iruzur egitea da. Beraiek guri langabezia ordaintzeko guk lehenago jarri behar dugu dirua.

Hau hasi besterik ez da egin?

Bai. Guk gurea baino lan karga gehiago duen enpresek in zaten dugu harremana eta haiek aurtengo ez dela ezer esaten digute, datorren urtekoa askoz okerragoa izango dela.

«Zaila da beltza zuria ikusten»

KRISTINA MUJIKA > Erretiroduna

Berastegi jaio zen Kristina Mujika, baina urteak daramatza Tolosan. Ez omen du inoz antzeko krisi egoerarik ezagutu eta bere hitzetan kaltetuenak gazteak izango dira.

Nola bizi duzu krisi egoera?

Nik eta nire ingurukoek ez dugu gertutik sumatu oraindik. Hitz egin bai, asko hitz egiten da krisiaren inguruan: pentsioekin ere sartu dira, baldintza gabeko kalera- zteak... Nire lehengusua, adibidez, Gorostidin egiten du lan eta dirudienez nahiko gaizki dabilta.

Zure ustez zergatik sortu da krisia?

Nire ustez diruguztia kanpora eramane dute jende handi horrek.

Krisia hasi besterik ez da egin?

Bai, etorkizuna beltza ikusten dut. Alabek dena beltza ikusten dudala esaten didate, baina zaila da beltza zuria ikustea. Nik horrela ikusten dut, baina ez dakit... Patxi honekin ere ez dakit...

2025. urtera arte behintzat pentsioak ziurtatuak izango dituzue.

Hori esan omen dute, baina gero bat-batean guztia eror daiteke. Au-



A. IMAZ

rreko batean baten batek esan zuen datorren urtean ez dugula goerarik izango. Erretirodun batzuk hilean 500 euro inguru jasotzen dituzte, zer da hori!

Nork sufrituko du gehien krisia?

Gazteak. Segituan pasako dela diote, baina nire ustez ez da horrela izango, hobe horrela izango balitz, kaltea bestela danontzat izango litzateke eta. Erizainek eta medikuek bai, horiek beti izango dute lana, gaixoak beti egongo dira eta!



A. IMAZ

«Enpresek aurrera jarraitzea edo ez dago jokoan»

AGUSTIN GARMENDIA > Langilea

Tolosarra da Agustin Garmendia eta krisiaren eraginez eskaerak lantegian %30-40 inguruan jaitsi omen dira bere hitzetan.

Langabezian edo lan erregulazio espedituea pairatu duen inor ezagutzen al duzu?

Langabezian gelditu den inor ez. Baina lan erregulazioaren kontua geroz eta gehiago entzuten da eta jende asko ezagutzen dut pairatu duena. Enpresa asko egoera larrian daude eta horren ondorioa da neurri hau. Sektore guztiak ukitu ditu krisiak.

Nondik sortu da krisia?

Finantza mundutik datorrela diote baina ez dakit. Estatuan erakuntza mailan nabaritu da gehien, baina hemen ez da horrenbeste eraiki. Hala ere, sektore honen beharadak honi lotutako beste lanbide asko kaltetu ditu: elektronika, arotzak, elektrogailuak...

Zer egin behar da krisiari aurre egiteko?

Nire ustez irautea da gakoa. Bizi irauten duten enpresak ondo joango dira, ez dute azken 10 urteetako irabazirik edukiko baina merkatua ez da galdu, hor baitago.

Langileek zerbait egiterik ba al daukete?

Ez dakit. Enpresa batzuk ondo doaz eta beste batzuk ez. Gaizki doazen enpresetan agian espeditue erregulazioak ezarri beharko dira. Langileek ikusi behar dute hau ez dela gu izurratzeko patronal sortu duen zeozer, kasu honetan denok batera gaude, eta enpresek aurrera jarraitzea edo ez dago jokoan. Aurrera jarraitzeko sakrifkatu behar baldin bada sakrifkatu egin beharko da.

«Krisia langileok sufrituko dugu»

RUTH GONZALEZ > Langilea

Ruth Gonzalez gaztea ama izan berri da bigarren aldiz eta amatasun baja amaitzeaz dauka. Eroskiko aldi baterako langilea da.

Nola bizi duzu krisia?

Gaizki. Mutil laguna lanik gabe geratu da eta amatasun baja gabe geratuko naiz orain. Eroskin egiten dut lan eta aldi baterako langile guztiak kaleratzen ari dira orain. Hitz egitera joango naiz, baina ez dut esperantza handirik.

Eta zure inguruan nabaritu al duzu eragina?

Bai, mundu guztia ari da krisiagora eta krisia behera, beste ezertaz ez da hitz egiten orain. Jende guztia larri dabil.

Agintariak ondo egiten ari al dira euren lana?

Ez, ez dute ezer egin, asko hitz egiten dute, baina nik aldaketarik ez dut ikusten. Beraiek bazekiten krisia bazetorrela eta ez zuten ezer egin. Uste zutena baino handiagoa izaten ari da.



A. IMAZ

Nork sufrituko du gehien krisiaren eragina?

Guk, dirurik ez daukagunok. Pisu bat ordaindu behar dugunok. Langileok sufrituko dugu; azken urte hauetan enpresek diru asko egin dute eta egoera nola dagoen ikusita orain ez dute inbertitu nahi. Itxaron egingo dute orain; dirua gorde eta langileak kaleratuko dituzte.

«Datorren urterako hobetzen joango da»

ASIER IRULEGI > Langilea

Asier Irulegi gaztea errezildarra da eta duela urte eta erdi krisiaren ondorioz lanik gabe geratu zen. Orain lan bila dabil.

Krisia gertutik bizi izan duzu, beraz.

Bai, gertutik bizi dut. Hala eta guztiz ere, hurrengo lana nahiko lotuta daukat, baina oraindik ez didate esan joateko. Bitartean ez nabil beste lan baten bila, zain nago.

Inguruan ere nabaritu al duzu?

Bai, lagunartean beti entzuten duzu zerbait; handik langileak bota dituztela, besteari orduak kendu dizkiotela, ostiral arratsaldeetan jai egiten dutela...

Datorren urtea hobea izango dela uste al duzu?

Nire ustez datorren urterako egoera hobetzen joango da. Jada gauzak merketzen hasi dira: etxebizitza orain ez dute inbertitu nahi. Mugimendua badagoela dirudi eta iruditzen zait horren arabera lana berriro ere sortuko dela.



A. IMAZ

Komunikabideen bidez jarraitzen al duzu gaia?

Nahi gabe ere jarraitzen duzu gaia, azken batean denoi eragiten digu.

Gutxiago kontsumitzen al duzu orain?

Pixka bat bai. Gehiago begiratzen diet orain gastuei, nahiz eta lagunekin ateratzerakoan antzeko moduan ibiltzen naizen.

Kalitatezko hezkuntzaren aldeko ekimena Erleta Eskolan

Leitza » Hitzaldia, bideo emanaldia eta ipuin kontaketa burutu zuten 'Liburu bat zabalduz mundua eskura' lelopean.

ASIER IMAZ

Erleta Eskolako irakasleek eta ikasleek ospakizun eguna zuten atzokoa, Hezkuntzaren Aldeko Mundu-Kanpainarekin bat egin baitzuten.

Goizean duela 17 urte Ruandan egon zen Jose Jabier Etxeberria sendagile goizuetarrak Afrikako herrialdearen inguruko hitzaldia eskaini zuen. Txikienek berriz Afrikaren inguruko bideoa ikusi zuten. Arratsaldean, ikasle guztiak sortutako ipuinairakurri zuten Es-

kola guztiaren aurrean 6. mailako ikasleek. Erletak 3. urtez hartu du parte ekimen honetan. Orain dela 2 urte Giza-katea osatu zuten eta iragan urtean Afrikako Puzzlea.

Kalitatezko hezkuntza

Mundu mailako kanpaina honen helburuak «guztontzat kalitatezko hezkuntza» lortzea dira, 6 puntutan oinarriturik: «Haur Hezkuntza zabaltzea eta hobetzea; Guztontzat, doako, nahitaezko eta kalitate oneko lehen hezkuntza bultzatzea; Gazte eta heldu guztiak prestaketa eta programak egiteko aukera izatea; Helduen alfabetatze maila handitzea; Lehen eta bigarren hezkuntzan genero desberdintasunak ezabatzea eta hezkuntza-kalitatea hobetzea».



Ruandako bizipenak kontatu zituen Jose Jabier Etxeberriak. Arratsaldean ikasleek sortutako ipuina entzun zuten. HITZA

Astelehenean hasiko dira kolektorearen lanak San Inazio auzoan

Ibarra » Lanak 2 eta 3 aste inguru iraungo dute eta hauen ondorioz auzoko zubia itxita egongo da ibilgailuentzat.

Aipatu behar da, era berean, lanen ondorioz, San Inazio auzoko zubia itxita izango dela ibilgailu guztientzat. Lanek 2 eta 3 aste inguru iraungo dute.

UTE Benta Aundi enpresa

Lanak UTE Benta Aundiri esleitu dizkio Udalak.

Esandakoaren arabera, aipatu enpresak bilera ere izan du Eusko Jaurlaritzako Uraren Euskal Agentziarekin eta Ibarroko Udalarekin sor daitezkeen aldaketak ikusteko, horrela lanak ibilgailuen ohiko joan-etorriarekin, ahal den neurrian, bateratu ahal izateko.

ERREDAKZIOA

Oriako Saneamenduko kolektore orokorraren adarreko lanak astelehenean, hilak 27, hasiko dira Ibarroko San Inazio auzoan.

Auzoko zazpigarren zenbakian hasiko dira eta lanek erreka espaloiean, bidean eta bertako apar-kalekuan eragingo dute.

Txolarreren Kantu Bazkaria izango da gaur Urepele elkartearen

Berastegi » 14:00etan hasiko dira eta parte-hartzaileen artean kantuen liburuxka banatuko dute.

ERREDAKZIOA

Txolarre Irratiak aurrera jarraitzen du Kabitik Plazara ekimenerekin «irratia Anoetako estudiotik Tolosaldeko plazara ateratzeko» helburuarekin. Hiru bertso saio eta herri kirol jaialdiaren ostean, orain kantu afari eta bazkariaren txanda iritsi da. Lehena Berastegin izango da, gaur, hilaren 25a, 14:00etan.

Aipatu behar da Kabitik plazara ekimeneko ekitaldi guztietan, he-

rritarrekin elkarlana sortzen saiatu dela Txolarre Irratia. Berastegiko kasuan, «herrian kantari bikainak daudela baliatuz», horiei egin zioten proposamena. Hauek «segituan eman zuten baiezkua eta saioa prestatzeko lan handia» egin dutela esan dute irratiko ardura-dunek. «Ilusio handia jarri dute eta eskertu beharrean gara», adierazi du Leire Zubeldia Txolarre Irratiko kideak.

Protagonistak

Hauek izango dira Berastegiko kantu bazkariko protagonistak: Izaro Saizar, Maialen Etxeberria eta Iñaki Barriola berastegiarrak kantuan, eta Garazi Esnaola lizar-tzarra pianoan. Bazkaria eguerdiko 14:00etan hasiko da Urepele el-

kartean eta kantu emanaldia bazkal ondoan izango da.

«Euskal kantu ezagunak bildu dituzte liburuxka batean, eta piano lagun, horiek kantatuko dituzte. Baina ez kantari bakarrak, publikoa ere kantatzera animatuko dugu, horretarako errepertorioa jasotzen duen liburuxka etortzen diren guztiei banatuko diogu», jakinarazi du Zubeldiak.

Kantu bazkariak Berastegiko Udalaren babesa jaso du eta ezinbesteko laguntzaile izan dira Euskal Herriko kantuzale elkarteak eta Urepele elkarteak.

Hirurei eskerrak eman nahi dizkie Txolarre irratia, eta nahi duen orori egin diete deia euskal kantuez gozatzera Berastegira hubil daitezten.

Laburrak

Herria Kantuz gaur 18:00etan Berdura plazan

VILLABONA » Arrakastatik arrakastara doan ekitaldia ospatuko dute gaur 18:00etan Villabonan. Lehenik, sabela ondo orekatu gabe kantatzea ezinezkoa denez Euskal Herriari, merienda egingo dute Berdura plazan. Ondoren herriari zehar martxan jarriko dira Herria Kantuz ekimenaren baitan, euskal abestiak kantatuz.

Urteko hirugarren irteera egingo dute igandean

IBARRA » Langostino Moto Kultur Elkarteak urteko hirugarren irteera egingo du igandean. 09:30ean iritengo dira herriko plazatik eta handik Aramaiora (Araba) joango dira Goiko tabernan hamaiketako egiteko. Garrantzitsua da izena aldez aurretik ematea: langostino-motofesta@gmail.com helbidean edota 630 784 213 telefonon.

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

Mahala baserrria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

BERRI ON BAT DUGU
ZURE ETXETRESNA ELEKTRIKOENTZAT

TOLOSALDEAN
Zerbitzu
Ofizial Berria
BSH Taldeko
Markentzat

Interservice
Ubarburu pasealekua, 81-
Pol. Ind. 27 • 20014 Martutene

902 351 352

Interservice
Servicio Oficial de Clientes

Musikak ez du etenik

Musika » Askotariko musikaz gozatzeko aukera izango da maiatzean ere Bonberenean; 18 kontzertu izango dira, guztira.

ERREDAKZIOA

Ohiko moduan, musika eskaintza zabala antolatuta dute Bonberenean maiatzerako. Denetarik izango da, gainera: bertako taldeak, nahiz kanpokoak, eta ezagunak nahiz hasiberriak. Apirileko egitarauari dagokionez, gaurko Balerdi Erdi eta Fiachras taldeen kontzertuekin amaituko da. Hauek 22:30ean hasiko dira zuzeneko musika eskaintzen.

Gose eta Sagarroi Maiatzak 1, ostirala.

■ Gose Arrasaten sorturiko musika taldea da. Talde honek egiten duen musika trikitixa eta musika elektronikoaren arteko uztartzea da. Taldeak bere ibilbide musikala 2004an hasi zuen. Hiru pertsonak osatzen dute taldea: Ines Osinaga (Ekon taldeko partaide ohia), Iñaki Bengoa (Bad F-line taldeko partaide izandakoa) eta Osoronek (Gatillazo taldeko gitarrak-jotzailea izandakoa).

■ Sagarroi Iñigo Muguruzak (gitarra eta ahotsa, lehenago Kortatu, Delirium Tremens, Negu Gorriak eta Joxe Ripiau taldeetan), Carlos Zubikoak (lehen Apurtun) eta Gorka Baskaranek (bateria-jotzaile ohia Gatazka eta Be quieten) 2001ean sortu zuten taldea da. 4 disko kaleratu dituzte: *Meatzaldea*, *Euria* ari duela, *Toulouse* eta *Baleike*.



Gose taldeko Ines Osinaga eta Iñaki Bengoa. NAROA BALSATEGI / IRUTXULOKO HITZA

We are standard

■ **Maiatzak 7, osteguna.** Modako euskal taldea dela diote askok. Izan ere, Getxoko taldeak ez dauka mugarik: kritika bikainak eta sariak ugari izan ditu, eta bira luzea iragarri du taldeak hurrengo hilabeteetarako. Ameriketara izan dira euren musika aurkezten, Euskal Herriara daude orain, eta Espainian ere izango dira.

Acido C eta Mamba beat Maiatzak 8, ostirala.

■ **Acido C 2002**, urtean sortu zen, hainbat ideia eta estiloko bederatzitik musikari gipuzkoar elkartu osatzen. Ez zaizkie etiketarik guztuzten, baina, beraien musika funk, jazz eta acid-jazz arteko nahasketak bat dela esan daiteke.

■ **Mamba Beat taldea 2006** urteaz geroztik ari da hurbiltzen zaien oro dantza makina bihurtzen. Izan ere, diotenez, eginkizun horretarako elkartu dira ibilbide luzea duten musikariak.

Innerv eta Kaskezur Maiatzak 9, larunbata.

■ Innerv taldeko kideek euren azken lana, *Tripulante* izenekoa aurkeztuko dute Bonberenean eszenatoki gainean.

■ Elizondoko Kaskezur taldea rock eta soul doinuak nahastean dituen bere lehen diskoa aurkeztu dator: Itzulerak kapsularik gabe espaziora bidalitako azken zaku-rrak.

Xabi San Sebastian

■ **Maiatzak 15, ostirala.** Txikitatik izan du lotura musikarekin. Oraingoan, *Ospela* diskoa aurkeztuko du, bere bakarkako bigarrena, hain zuzen. Autoreak nortasunez beteriko rock melodiko interesgarria eskaintzen digu, argi-itzaletan ñir-ñir distiratzten duten 13 kanta zuzen bezain samur, biziak bezain gozoak, sentiberak eta, aldi berean, indartsuak, bizitzaren iraganak uzten dituen zertzeladen lekuko musikal erakargarria osatuz.

Yakuzi eta Ioan

■ **Maiatzak 16, larunbata.** Yacuzi Durango eta Elorriotik datorren taldea da, eta Ioan, berriz, 2005ean sortu zen, Bilbo inguruan, rock talde baten oinarritzko formatua erabiltzen duelarik.

Norman eta Brankan

■ **Maiatzak 22, ostirala.** Eibarko Norman taldea, orain urte eta erdi hasi ziren musika jorratzen. Bestalde, Rockaren olatuaren pean sortu zen Antiguako Brankan.

Biok eta Pog mo thon

■ **Maiatzak 23, larunbata.** BioK taldea Euskadi Gazteko maketa lehiaketako irabazle izan da, Pog mo thon, berriz, Mungia taldea da, eta ezaugarriak esanguratsuena bere etengabeko bilakaera dela esan daiteke.

The intelligence

■ **Maiatzak 25, astelehena.** Estatu Batuetako Seattle hiriko taldea da The intelligence. Lars Finberg (A Frames eta Dipers taldeetan aritutakoa) da taldearen liderra. The Fall, Le Shok edota The Residents bezalako taldeen jarraitzaileentzat bereziki gomendagarria da, eta euren zuzenekoagatik, ikusgarria baita.

Rosalía Roio

■ **Maiatzak 29, ostirala.** Rosalía roio madrildarrak musika ugari jorratzen ditu, espainiar herrikoetik flamenkoraino baitoa, esaterako.

Napoka iria eta Gora japon

■ **Maiatzak 30, larunbata.** Eibarraren sortu eta garatutako bikote artistikoa da Napoka iria, eta Gora japon, berriz, 2005 urte bukaeran sorturiko rock taldea da.

Laburrak

San Joan jaietako Bordonantzako Bordonantzako entseguak

JAIK ● San Joan jaietako begira, Uda-berri dantza taldea Bordonantzako prestaketekin hastear da. Datorren ostegunean, hilaren 30ean, egingo dute lehendabiziko entseguak. Hau, 20:30ean izango da, Usabal kiroldegian. Hemendik aurrera ostegunero izango dira saioak.

Osoko bilkura izango da datorren asteartean

UDALA ● Tolosako Udalak, datorren asteartean, hilaren 28an, egingo du osoko bilkura. 19:30ean izango da, eta besteak beste, ondorengo gaiak eztabaidatuko dituzte: Alondigan dagoen plaza berriaren izendapena onartzea eta EB- Aralarrek aurkeztutako mozioa, UEMA sartzeari buruz.

Gatazkak konpontzeari buruz hitzaldia asteartean

HEZKUNTZA ● Datorren asteartean, hilaren 28an, *Gatazkak konpontzeko modu positiboak* gaiaren inguruan hitzaldia antolatu du Elkartzitza Planaren barruan. Geuz taldeko arduraduna den Lucia Gorbeña izango da hizlaria. 16:30ean izango da Haur Hezkuntzako erabilera anitzeko gelan.

Hungariar menua eta musika Fronton jatetxean

GASTRONOMIA ● Hungariar gastronomiari buruzko jardunaldiak ari dira burutzen egunotan Fronton jatetxean, gaur izango da azken eguna. Hungariar menuak eta bertako musikaz gozatu ahal da.



Pello Zabalaren
Eguraldia beti airean
liburua

Nola eskuratu liburua?

1.- ZURE KARTILLA ESKURATU

Apirilaren 25ean, larunbata, **BERRIAREKIN**.

2.- KUPOIAK ITSATSU

Apirilaren 25etik aurrera, egunero kupoiak argitaratuko dira BERRIAN, guztira 4.

3.- Kartilla osatutakoan, kioskora eramanez, handik bi astera, kiosko berean izango duzu liburua, **3,90 €-ren truke** jasotzeko.

Ipar Euskal Herriko irakurleek ez duzue kartilla bete behar, baizik eta zuzenean dituzte behar duzue Harpidetza Saileko telefonora: (0034) 943-30 43 45.



Apirilak 25, larunbata
kartilla eta **1. kupoia berriarekin**

HARPIDEDUNTZAKO OHARRA:
Nahikoa izango duzue **943-30 43 45**
telefonora deituz edo **www.berria.info**
webgunean izena ematez, eta **3,40 €-ren**
truke etxean jasoko duzue liburua.

kutxa

aukera ezazu
bizi euskaraz
berria



Agur aurtengo Naturaldiari

INGURUMENA ● Naturaldiaren baitako azken ekitaldia izan zen atzokoan, Kultur Etxean. Hain zuzen ere, Adimen ekologikoaz aritu zen Jose Antonio Marina irakasle eta filosofoa, Jonan Fernandez Baketik-eko zuzendaria aurkezte zuela. Kultur Etxea jendez bete zen azken ekitaldi honetan. Hasiera batean datorren aste-

lehenerako *Atanar Juat: La leyenda del hombre veloz* filma aurreikusi zen Leidorren, baina azkenean bertan behar geratu da. Bestalde, Tolosako ekitaldiak bukatu diren arren, Naturaldiaren egitaraua ez da amaitu, maiatzean eta ekainean Errenterira, Zarautzera eta Hernaniko Txillida Lekura zabalduko baitute. ir.



Euskal kirolak ezagutzeko aukera izan zuten atzo Berazubi estadioan, kirol topaketetan. E. EZEIZA



Atletismoarekin lotutako proba ezberdinetan ere parte hartu zuten Tolosaldeko, Goierriko eta Urolako gazteak. E. E.



Lehen Hezkuntzako 200 haurretik gora elkartu ziren atzoko ekitaldian. E. E.

Kirola eta harremanak bultzatuz

Aisia » Atzo goizean, Berazubi estadioan, Eskola Txikietako Kirol Topaketak egin zituzten VII. aldiz; 200 haurretik gora elkartu ziren ekimenean.

ESTI EZEIZA

Berazubi estadioa kirolari txikiz bete zen atzo. Zazpigarren aldiz ospatu baitzen bertan, Eskola Txikietako Kirol Topaketak. Bertan eskualdeko hainbat herri txikieta-ko haurrek, nahiz Gabiria eta Errezilgo haurrek hartu zuten parte.

Herri kirolak, jokuak eta atletismo probak gauzatu behar izan zituzten gazteak. Hala txikiak frontoi inguruan zebiltzan bitartean, gainontzeako atletismoko

pistaren bueltan, erreleboka aritu ziren.

Topaketa hauek nagusiki hiru helburu dituzte. Hasteko, herriezberdinetako ikasleen arteko harremanak bultzatu nahi dituzte. Topaketa hauek elkar ezagutzeko aukera ematen baitiete. Bestetik, kirolak eguneroko bizitzan duen garrantzia ikusita, haurrengan ohitura hauek zabaldu nahi dituzte. Hala, txikitatik ikasi dezaten eta gerora jarraitu. Azkenik, Tolosan

antolatzen diren olimpiadetan parte hartzearen asmoarekin sortu zen ekimen hau duela zazpi urte.

Lehen Hezkuntzako 3, 4, 5 eta 6. mailako ikasleei zuzenduta daude Topaketa hauek. Herri ezberdinetako ikasleak taldeetan nahastzen dira eta denak batera lehiatzen dira proba ezberdinetan. Txingekin, lokotxak biltzen, sokatiran, esku pilotan, soka saltoan, lasterka, pisua jaurtitzen... aritu ziren atzo goizean. 10:00ak aldera joan ziren Berazubira eta 12:00ak arte ibili ziren bertan.

2002-2003 ikasturteaz geroztik, urtero, ospatzen dituzte Tolosaldeko Eskola txikiak, kirol topaketak.

Iragarki laburrak

BESTEAK

■ **Zakurkumeak.** Bi hilabeteko bi zakurkume oparitzen dira. Interesatuak harremanetan jartzeko deitu 646 62 98 42 telefono zenbakira.

LANA

■ **Etxeko lanak.** Emakume euskaldun bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko zein adinekoak zaitzako. Autoarekin. Interesatuak, harremanetan jartzeko deitu 943 67 38 35ra.

■ **Bigi garbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Interesatuak deitu inongo konpromezurik gabe. Harremanetarako telefono zenbakia: Irene: 638 94 46 04 / Itsaso: 695 70 82 71.

■ **Zaintzailea.** Emakume euskalduna behar da arratsaldeetarako. Adineko pertsona zaintzeko, kotxea behar du. Interesatuak deitu gaueko zortziak eta hamarrek bitartean ondorengo telefono zenbakira: 943 11 72 85.



Oihana Iguaran agurreko bertsoa botatzen. Atzean, ura edaten Ane Labaka N. URBIZU

Azken kanporaketan jakingo dute finalera pasa diren

Villabona » Eskolarteko Bertso Txapelketako lehen saioa izan zen atzo Gurean eta Ane Labaka eta Oihana Iguaran aritu ziren.

NEREA URBIZU

Gipuzkoako Eskolarteko 29. Bertso Txapelketako lehenengo kanporaketa jokatu zuten atzo Villabonan. Eskualdetako kanporaketa izan zen. Lehenik, Jesusen Bihotza ikastolan bertso paper lehiaketa izan zen eta ondoren, Gurea aretoan bat batekoa. Ikastolen elkarrekin antolatutakoa da txapelketa. Esan bezala, atzoko lehen kanporaketa izan zen eta hilaren 22ra arte (azken kanporaketa) ezingo da jakin nor pasako den finalera.

Eskualdeko bertsolari gaztetxoak ez ziren atzo faltatu, 14 eta 18 urte bitarteko mailan, hain juxtu. Izan ere, Asteasuko bertso eskolako bi kide aritu ziren: Ane Labaka (Lasarte) eta Oihana Iguaran (Amasa).

Bertso paper lehiaketan 132

Bertso paper lehiaketan 5. eta 6. mailako arteen 51 bertsozalek aurkeztu zituzten bertsoak. DBH

12 eta 14 urte bitarteko arteen, berriz 70. DBHko helduen artean 11 lagunek egin zuten lana.

Atzo 14 eta 18 urte bitarteko 6 bertsolari gazte aritu ziren, tartean, arestian aipatu bezala, Oihana Iguaran eta Ane Labaka, Asteasuko bertso eskolan aritzen direnak,

Beste hiru kanporaketa gelditzen dira eta azkenekoan erabakiko da nor joango den finalera

alegia. Beraiekin lehiatu zen Asier Azpiroz, joan den urteko irabazlea. Beraz, atzo Gurean, joan den urteko podiuma osatu zuten hirurak aritu ziren, beste hirurekin batera.

Ane Labakak eta Oihana Iguarnek ofizioki aritu zirenean depilatzea izan zen gaia, eta ateratako konklusioa honakoa izan zen Iguarnek esan bezala: «Gustatzen ez zaionak ez dezala begiratu».

Agurreko bertsoak kenduta beste bost proba egin behar izan zituzten gazte hauek: lau oinak emanda, ofiziotan bina bertso, puntua erantzuteko beste bat eta azkenik, gaia emanda beste bat.

Datozen kanporaketak hauek izango dira: Orion maiatzaren 8an, 15ean Eskoriatzan, 22an Beasainen eta final handia maiatzaren 29an (ostirala) izango da, Donostian. Kanporaketa hauen baitan eskualdeko gehiagok hartuko dute parte, bai taldeka eta baita banaka ere.

Taldeka Oiarzun eta Hernani

Txikien mailan taldeka aritu zirenak Hernaniko bat eta Oiarzungo bi izan ziren. Epailen lanetan, aldiz, bai txikiekin eta bai gazteekin Aitzol Astigarraga, Karmele Mitxelena eta Zigor Leunda aritu ziren. Bukatzeko, aurkezle moduan Jon Zaldua bertso gai-jartzailea aritu zen.

Laburrak

Bakardadeari aurre egiteko bidei buruz ariko dira

ALTZO » Asteartean *bakardadeari aurre egiteko altematikak: animaliak, ikasle gazteak, lagunak egitea* hitzaldia izango da Altzoko udalarekin. Kutxaren laguntzaz Nagore Vazquezek bideratuko du hitzaldia. 19:00etan izango da eta orokorrean, bakardadeari aurre egiteko altematika ezberdinen informazioa emango ditu Vazquezek. Ahal den neurrian bakardade eta depresio egoerak ez gertatzea izango litzateke helburua.

Festak prestatzen hasteko lehen bilerara egingo dute

ALTZO » Datorren asteartean, Altzoko Saninazioak prestatzen hasteko lehen bilerara egingo dute Elordi elkarteak. 21:30ean izango da eta antolatzaileek «ahalik eta herriar gehienak gerturatzea» nahi dute, ideia gehiago emateko eta festak herriar gutzietan begira den arteen antolatzeke.

Jaietako kartel lehiaketan aurkezteko epea zabalik

ANOETA » Anoetako Festa batzordeak festak iragartzeko kartel lehiaketaren deialdia egin du. Honetan, herriko ikastolako ikasleek edo Anoetan errotatutakoek har dezakete parte. Kartela gehienez neurri hauetakoa izan behar da: 29,7 zm bider 29,7 zm, testu hau agertuz: *Anoetako festak 2009*. Lanarekin batera, eta kartazal itxi batean egilearen datuak sartuko dira. Kanpoan eta kartelaren atzealdean, berriz, egilearen goitizena. Lanak aurkezteko epea maiatzaren 12an bukatuko da 13:00etan, udalarekin. Epaimahaia Anoetako Festa batzordeak osatuko du.

Bularreko minbiziaren prebentzioaz, asteartean

IRURA » Bularreko minbiziaren prebentzioari buruzko hitzaldia egingo dute asteartean Iruran. 18:00etan hasiko da Irurako Ikastolako aretoan, hain zuzen. Arrate Plazaola arduratuko da hitzaldiaz. EUFEMAS Euskal Herriko mastektomizatuen elkarten federakundeak bideratutako hitzaldia da.

Euskalgintzako taldearen bilera egingo dute etzi

ALEGIA » Etzi 19:00etan Alegiako euskalgintzako taldeak bilera irekia egingo du Kultur Etxean. Herriaren euskararen inguruan dauden beharrik eta egitekoak aztertu eta lantzea du helburu martxan jarri berri den taldeak. Interesa duten herritarrek parte hartu eta ekarpenak egiteko aukera dute.

Ohiko bilkura datorren asteazkenean egingo dute

AMEZKETA » Datorren asteazkenean, hilak 29, hain zuzen, Amezketa ohiko bilkura egingo dute, 20:30ean hasita. Bertan, besteak beste, UEMAK aurkeztutako Osakidetari buruzko mozioa sartuko dute, batzordearen informazioa emateaz gain.

Festetako umeen egunean bazkaria ere izango da

ANOETA » Anoetako festetan ume eta gaztetxoek bazkarian izena emateko epea zabalik dago, maiatzaren 22ra arte (ikastolan). Ekainaren 11n izango da eta betiko ekitentz gain, bazkaria izango da ere. LH 1etik aurrerakoentzat da 2 euroren truke. Dirua izena emateko garaian eman behar da.



Artecaren jarrera salatu dute

VILLABONA » Arteca Caucho Metal enpresa abendu hasieratik orain arte lan erregulazio espedientean daude enpresako 107 langile. Orain enpresak, beste bi lan erregulazio espediente aurkeztu dizkiete: batekin 20 langile kalartzeko asmaoa dauka. Bestearekin gainerako langileak %40an erregulatzeko helburua 6

hilabetetan. Hauen aurrean enpresa batzordeak (LABeko 5 kide eta ELAko 4) bere aurkako jarrera azaldu zuen, lan delegaritzaren aurrean elkarretaratzeari buruz. Enpresa batzordeak bere negoziaketarako prestutasuna adierazi nahi du, «betiere kalartzearen mehatxua erretiratzeko badu enpresak». HITZA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Santiago egoitzako en protestak

VILLABONA ■ Bi hilabete baino gehiago daramatzate Santiago egoitzako langileek mobilizazioak egiten. Atzo eguerdian ere elkarretaratzea egin zuten, udaletxearen aurrealdean. Egoitzako langileek salatu zuten, «Villabonako Udaleko ANVk ez du ezer jakin nahi Udal egoitzan lan egiten dugun langileon eskakizunaz». «Arrasaten ez da hau gertatzen», gehitu dute. Langileek «garbi» dute Santiago egoitza «udal zerbitzu bat dela eta horregatik ari gara eskatzen Udalarekiko ekiparazioa». 16.

Hizkuntza Eskubideen Egunaren harira mahai ingurua antolatu du EHEk

Villabona ■ Apirilaren 29an izango da, 19:30ean, Gurea aretoa; herritar guztiak daude gonbidatuta.

ERREDAKZIOA

Heldu den maiatzaren 3an, larunbarekin, Hizkuntza Eskubideen Eguna antolatu du Euskal Herriari Euskaraz-ek, Ondarroan. Egun honen harira Villabonako EHEk mahai inguru bat antolatu du, datorren apirilaren 29rako, asteazkena, 19:30ean Gurea aretoko erakusgelan. EHEk herritar guztiak gonbidatu ditu bertan parte hartzera.

Hizkuntza eskubideen informazioa zabaltzea helburu EHEk informatu duenez, mahai inguru honen helburua euskaltzaleei eta herritarrei orokorrean hizkuntza eskubideen inguruko informazioa zabaltzea izango da, besteak beste, zeintzuk diren eskubide horiek, zer egoeratan dauden eta zer pauso eman daitezkeen eskubide hauek bermatuak izateko.

Bestalde, herritarren ekarpenak jasotzea eta eztabaidari bide ematea ere nahiko genuke. EHEk euskararentzat proposatzen duen aldaketa edo alternatiba gizarteratu eta eztabaidatzea izango da mahai inguru honetako beste helburu bat.

Elkarrizketa digitala. Ikaztegiategi Leire Olaberria txirrindulari profesionalarekin elkarrizketa digitala egingo du HITZAK, apirilaren 27an, astelehenerekin, 12:30etik aurrera. Une honetan zuzenean bidal ditzakezu galderak, Leirek zuzenean erantzuko ditu. Aurretik ere bidal ditzakezu zuen galderak gure webgunean sartuz eta *Elkarrizketa digitala* atalean sartuz gero. Halaber, atal honetan aurretik HITZAn egin diren elkarrizketa digital guztiak irakur ditzakezu.

www.tolosaldekohitza.info

Krisia hizpide Sanblaspiko Gazte Asanbladaren Maiatza Gorrian

Tolosa ■ Nekazaritzaren egoera, immigrazioa,... ere jorratuko dituzte; lehenengo ekitaldia apirilaren 29an izango da.

ERREDAKZIOA

Iazkoan apirila izan bazen ere aurreko maiatza aukeratu dute Tolosako Sanblaspiko Gazte Asanbladakoek *hilabete gorri* bezala. Hala, heldu den apirilaren 29an hasita krisia, nekazaritzaren egoera, immigrazioa,... bezalako gaiak jorratuko dituzte Maiatza Gorriaren baitan.

Hitzaldi hauen xedea, Tolosako herritarren, eta «batez ere, gazteen artean kontzientzia piztea» dela zehaztu dute Gazte Asanbladatik. Une honetan «krisia gora eta krisia behera, beste gauzarik entzuten ez dela», Gazte Asanbladatik argi ikusten dute, «ezin dugula ezer egin gabe geratu», eta «inoiz baino arrazoi gehiagorekin, aurre egin behar diogu, miseria besterik eragiten ez duen sistema kapitalista honi», zehazten dute.

Egitarau zabala antolatu dute, baina oraingoz lehen hiru ekitaldien berri eman dute.



Iaz ere Apirila Gorria antolatu zuten Sanblaspiko Gazte Asanbladakoek. N. URIBI/IZU

Hasteko, Maiatzaren 1a hizpide

Datorren asteazkenean, apirilaren 29an, Maiatzak Iaren gertutasuna dela eta, ezkerreko eragile eta sindikatu ezberdinekin mahai ingurua egingo dute, Tolosako Kultur Etxean, 18:30ean. Bertan, LAB, ELA, CNT, Boltxe eta EH Sozialistako kideak ariko dira hizketan. Bertan landuko dituzten gaiak, krisia, langile mugimendua eta irtenbideak izango dira. Gazte Asanbladako kideek bertaratzeko gonbitea luzatu diete herritar guzietan.

Maiatzaren 1ean eta 2an, festa eta gehiago

Langileen Egunerako, Maiatzaren 1erako, festa berezia antolatu dute, non musika izango den nagusi. Hala, 18:30etik aurrera, Otsabi elkartean Peachy Joke ariko da, ondoren talde gonbidatu bat ere izango delarik.

Egun bat beranduago, maiatzaren 2an, larunbarekin, bideo-foruma izango da, 18:30etik aurrera. Bertan «Italiako AHTren aurkako borrokaren arrakata» landuko dute.

» MAIATZA GORRIA: LEHEN EKITALDIAK

- **Apirilak 29, asteazkena.** Tolosako Kultur Etxean, 18:30ean, Kri-siaren inguruko eztabaida: ELA, LAB, Euskal Herria Sozialista eta Boltxe.
- **Maiatzak 1, ostirala.** Otsabin, 18:30ean, Peachy Joke eta talde gonbidatua.
- **Maiatzak 2, larunbata.** Otsabin 18:30ean, *Gelditzea badago* bideo-foruma, Italian AHTren aurkako borroka.

Urteurrena

I. urteurrena
JOSE ANTONIO OTEGI ILOPETEGI



«Maitasunak behin batu gintuenok banatzeko indarrak ez du ezerk, ezta heriotzak ere».



Urteurrenako meza bihar igandea, hilak 26, eguerdiko 11:00etan izango da Leaburuko Pedro Deunaren elizan.

LEABURUN
2009ko apirilaren 25ean

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Antzerkia

■ **Tolosa.** *100 % Tricicle (Clownic)* antzezlan Leidor aretoan 20:30ean.
■ **Zizurkil.** *Malabrikers* antzezlan Pedro Mari Otaño plazan 19:00etan, antzerki jardunaldien barruan.

Musika

■ **Tolosa.** Tolosa kantari Tonto kaletik 12:00etan abiatuta, Alde Zaharreko kaleetan zehar. Euskarazko kantu ezagunak abesteko aukera, denentzat irekia.
■ **Tolosa.** Balerdi 'terdi eta Fiachras musika taldeen emanaldia Bonberenean 22:30ean.

Deialdiak

■ **Berastegi.** Kantu bazkaria Urepel elkartearen 14:00etan herriko abeslariarekin.

Zinema

■ **Tolosa.** *El luchador* filma emango dute Leidor aretoan bihar, igande, 22:00etan.
■ **Villabona.** Gurea aretoan *The Reader* filma emango dute gaur 19:30ean eta 22:30ean, bihar 19:30ean eta etzi 21:30ean.

Ikastaroak

■ **Tolosa.** Ereite elkarteak ipuin tailerra antolatu du bere egoitzan (San Esteban, 20) asteazkenetan 18:00etan hiru hilabetez (15 euro). izen-earmta, 685 750561 telefono zenbakian edo *multiculturalerite@yahoo.es* helbidean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.
■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

Algarvetik heldu direnak

ERREDAKZIOA

Egunero argitaratzen ari da HITZA irakurleek IX. Argazki Lehiaketara bidalitako argazkiak. Datorren astean ere horrela egingo du. Parte hartu nahi dutenentzat apirilaren 30era arte dago aukera. Datorren igandean, berri, 8 finalisten argazkiak argitaratuko dira.

Sariak ez dira nolana hikoak izango: Argazki irabazlearen egileak Muxikako (Urdaibain) Aldori landetxe ikusgarrian bi lagunentzat asteburu bat irabaziko du. Landetxe honek modernitate eskaintzen du inguru ezin hobean.

Nahi duenak www.aldori.es helbidean xehetasun guztiak ikus daitezke.

Bigarrenentzat ere izango da saririk. Hain zuzen ere, Tolosako Larrea jatetxean bi lagunentzat bazkaria edo afaria oparituko du HITZAK harpidedun bozken artean bigarren postua lortzen duenentzat.

Hirugarrenentzat, berri, Tolosako Gorrotxategi gozotegiak saski ederra prestatu du: Txokolatezko txapela, xaxu kaxa bat, Tolosako teilak eta zigarrotoak, gurinezko pastak eta Txakolinezko bonboi kaxa bat.



ALGARVE Argazki eder honekin hartu nahi izan du parte Aitor Tejeriak argazki lehiaketan. Hau kontatu zigu argazkia ekarri zuenean: Goizean goiz ibai baten inguruan atera genuen argazki hau, kamarari filtro jarri eta kolore oso bereziak atera nituen. Argazkia Algarven aterata dago». AITOR TEJERIA



ALGARVE Argazki koloretsu eta berezia benetan Nekane Alzelayk Argazki Lehiaketarako aukeratu duena. Algarven izan da Aste Santuan eta hau azaldu du argazkia bidaltzearekin batera: «Portugal hegoaldean dagoen Algarve inguruan atera nuen argazki hau, arrantzale herri txiki batean. Bertan leiho antzeko batean ipinita zeuzkaten lanerako katiuskak». NEKANE ALZELAY

A Agurrak



Urte askoan

Laiene Otamendi (Tolosa). Zure lehenengo urtebetetzean zorianak printzesa! Etxekoak eta bereziki Maialen eta Izadiren partetik.



Urte askoan

Maren Irazusta Balerdi (Aldaba). Gaur 2 urte. Zorionak bihurri! Muxu handi bat etxekoan partetik.

digital
h
@

Astelehenean, apirilak 27, 12:30ean

LEIRE OLABERRIA

ikaztegietako Txirrindulari profesionalarekin
elkarrizketa digitala

Bidali zure galdera!

HITZAren erredakzioan izango du zuzenean zuen galderak erantzuteko. Aurrez ere zuen galderak bidal ditzakezue gure webgunean.

www.tolosaldeko-hitza.info webgunean

